



**ESTATUTUEN ALDAKETAREN PROPOSAMENA
JUSTIFIKATZEKO TXOSTENA,
2009-KO AZAROAREN 25ean EGINDO DEN BATZAR NAGUSI
BEREZIAN AURKEZTEKO**



2007ko urtarrilaren 1az geroztik, Finantza Informazioari buruzko Nazioarteko Arauek (FINA) sozietateen balantzearen pasiboa osatzen duten partiden definizio berria egin zuten, batez ere, ondare garbiarena: inoren fondoak eta fondo propioak.

Gerora, 2008ko urtarrilaren 1etik aurrera, Espainiako Kontabilitate Plan Orokor Berriak (1514/2007 ED) Finantza Informazioari buruzko Nazioarteko Arauetan pasiboari eta ondare garbiari emandako definizioa jaso eta bereganatu du. Hain zuzen ere, Erregistroari eta Balorazioari buruzko 98. arauan honela definitzen da Finantza Pasiboa: *“edozein finantza-baliabide, jaulkitzaileari halako data jakinean eta zenbateko zehatzaren edo zehazgarriaren erreskatea eskatzeko edo aurretiaz zehaztutako ordainsaria jasotzeko (betiere bana daitezkeen mozkinak daudenean) eskubidea ematen diona edukitzaileari”*

Beraz, Kontabilitate Plan Orokor Berriak pasiboari buruz egin duen definizio berriarekin bat etorrira, baja ematen duten bazkideek kapital sozialera egindako derrigorrezko ekarpenak exijitu ditzaketenez, pasibo galdagarri moduan sailkatu behar dira ekarpenok, fondo propioa izateari utzita.

Baina, bazkideen kapital soziala Kooperatibaren Balantzeko Fondo Propioen barruan egoten jarraitzeko modu bakarra da estatutuetan sartzea bazkideei “ukatu” egin ahal zaiela kapital sozialaren zenbatekoaren itzulketa, nahiz eta bazkide guztiek horretarako eskubidea izan; beste era batera esanda, zenbait kasutan kooperatiba ez egotea behartuta (bestelakorik erabaki arte) kapital sozial hori itzultzeraz.

Erabaki horiek estatutuetan sartuta bakarrik ahal izango dio eutsi kooperatibak duen finantza-irudi sendoari eta irudi hori ez du kaltetuko kapital soziala fondo propioen partidatik pasibo galdagarriara aldatzeak.

Euskadiko Kooperatiben ekainaren 24ko 4/1993 Legearen 74. artikuluan ezarritakoa betetzeko, proposatutako estatutu-aldaketa justifikatzeko txosten hau egin dugu; itzulketa ukatzeko eskubidea duten ekarpenen kalifikazioa estatutuetan sartzeko dira aldaketa horiek.

Aldaketa hauek proposatu ditugu:

- 12. artikulua (‘‘Bazkideen eskubideak e) idatz-zatia aldatzea, kapital sozialera egindako ekarpenak itzul dakien eskatzeko aukera, bazkideen eskubide moduan sartzeko.

“e) ‘‘Kapital sozialera egindako ekarpenak itzultzeko eta eguneratzeko eskatzekoa, hala dagokionean, baita horregatik interesak jasotzekoa ere, erabakitako baldintzetan’’

- 40. artikulua (‘‘Sozietate-kapitala) BAT puntua aldatzea, itzulketa ukatzeko eskubidea duten ekarpenen definizioa sartzeko estatutuetan eta jasota uzteko aldi baterako bazkideen ekarpenak itzultzeko eskubidea duten ekarpenak direla beti.

“BAT. Bazkideek eginiko derrigorrezko edo borondatezko ondare ekarpenek eratzen dute Kooperatibaren sozietate-kapitala.

Bazkideek ekarpen hauek egin ditzakete sozietate-kapitalera:

a) Baja gertatuz gero itzultzeko eskubidea duten ekarpenak, Euskadiko Kooperatiben 4/1993 Legearen 57-1 a) artikuluaekin bat etorrira. Honelako ekarpenak dira aldi baterako bazkideenak.

b) Kontseilu Errektoreak baldintzarik gabe itzultzea uka dezakeen ekarpenak, Euskadiko Kooperatiben 4/1993 Legearen 57-1-b artikuluaekin bat etorrira.



Bazkideei itzultzeko eskubidea duten ekarpenak, Kooperatibak itzultzea baldintzarik gabe uka dezakeen ekarpen bihurtzeko, edo alderantzizko bihurtzeko, Kooperatibako Kontseilu Errektorearen adostasuna beharko du. Bazkideren bat horrekin bat ez baldin badator, baja eskatu ahal izango du; baja hori justifikatuzat joko da.”

- 45. artikulua ("Ekarpenen eskualdatzea") BI puntua aldatzea, Bazkide berriak sartzen badira, hasierako ekarpena egiteko, baja eman duten eta euren ekarpena itzultzea ukatu zaien bazkideen ekarpenak eskuratu ahal ditzaten.

"BI.-.....

Titularrek baja emandakoan Kooperatibak ekarpena itzultzea ukatu duenean, bazkide berrien hasierako derrigorrezko ekarpenak, baja eman duten bazkideen ekarpenak eskuratuta egingo dira. Ekarpenak itzultzeko eskarien antzintasun-hurrenkeraren arabera egingo da eskualdaketa eta, data bereko eskariak direnean, ekarpenen zenbatekoaren arabera.”

- 46. artikulua ("Ekarpenak itzultzea") aldatzea, BAT eta BI puntuak berriro idatzita eta HIRU eta LAU puntuak kenduta, ekarpenak itzultzeko baldintzak egokitzea, itzulketa ukatzeko eskubidea duten ekarpenak daudelako.

"BAT.- Bazkide izaera galtzen den orotan, honek edo beronen eskubide-hartzaile kreditatuek badute ahalmena ekarpenak itzul diezazkieten eskatzeko, baja egunean zuten balioarekin eta legezko xedapenetan ezarritako baldintzekin. Kontseilu Errektoreak baldintzarik gabe uka ditzake ekarpenak itzultzeko eskariak. Hauek dira ekarpenak itzultzeko arauak:

- a) Ekarpena itzultzeko eskaria Kontseilu Errektoreak onartzen duenean, itzultzeko epea ez da bost urtetik gorakoa izango erabakia hartu zen egunetik hasita, edota ez da urtebetetik gorakoa izango bazkidearen heriotza gertatu bada. Kontseilu Errektorearen eskumena da hori erabakitzea.*
- b) Kontseilu Errektoreak erabakitzen dituen itzulketak eskarien antzintasunaren arabera egingo dira. Ekarpen sozialak itzultzeko baldintzei buruzko gainerako berezitasunak ere Kontseilu Errektorearen ardurapekoak dira.*
- c) Kooperatibak itzultzea erabaki duen ekarpenetan, itzuli gabe dauden kopuruek, ekitaldi ekonomiko bakoitzaren hasieran dagoen diruaren legezko interesak jasotzeko eskubidea emango dute, baina ez eguneratzekoa.*

BI. – 14 eta 15. artikuluen arabera, baja justifikatuta dagoenean, edo heriotzagatik, ez da kenketarik egingo ekarpenen gainean.

Beste kasu guztietan, Kontseilu Errektoreak kenketa egitea erabaki ahal izango du:

- .- % 30erainokoa kanporatzeagatik baja denean, edo justifikatu gabeko borondatezko baja denean, gutxieneko iraupen-epea ez-betetzeagatik.*
- Bazkidearen derrigorrezko ekarpenen likidazioaren zenbatekoaren % 20rainokoa justifikatu gabeko baja denean, borondatezkoa nahiz derrigorrezkoa izan. Ez da egingo borondatezko ekarpenen kenketarik*

Portugalete, 2009ko Azaroak 6